# IRITZIAK

**Euskal iritzi publikoaren seihileko jarraipena**

*Seguimiento semestral de la opinión pública vasca*

# 11

**Urtarrila – Ekaina**

**2006**

**Enero – Junio**

*http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos*

**KATALUNIAKO AUTONOMIA ESTATUTU BERRIA**
*EL NUEVO ESTATUTO DE AUTONOMÍA DE CATALUÑA*

**EUROPAR BATASUNA**
*LA UNIÓN EUROPEA*

**BEGIKOTASUN POLITIKOAK**
*SIMPATÍAS POLÍTICAS*

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
*Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza*
*Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

PRESIDENCIA
*Dirección de Estudios y Régimen Jurídico*
*Gabinete de Prospección Sociológica*

# IRITZIAK - 11

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Enero – Junio 2006 Urtarrila- Ekaina

## LABURPENA / RESUMEN

### KATALUNIAKO AUTONOMIA ESTATUTU BERRIA
### *EL NUEVO ESTATUTO DE AUTONOMÍA DE CATALUÑA*

2006ko otsailaren hasieran, EAEko herritarren %95ek bazuten zerbait entzunda Kataluniarako Autonomia Estatutua erreformatzeko urtarrilaren bukaeran Rodriguez Zapatero presidentearen eta CiUko Artur Masen arteko akordioaz, eta herritarren bi herenek, gutxi gorabehera (%67k) interesarekin (interes handia edo nahikoa interesekin) jarraitzen zituzten Kataluniako Estatutuaren erreformari buruzko albisteak. Hala ere, bakarrik biztanleriaren %30ek zekiten, “nazio” hitza sartzeari buruz izandako eztabaidaren ondoren, azkenean Estatutu berriaren hitzaurrean sartu dela eta ez artikuluetan. %16k ondo zeritzoten aukeratutako formulari, %24k txarto zeritzoten, beraien ustez, “nazio” hitza artikuluetan ere egon beharko litzatekeelako, beste %17k ere txarto zeritzoten, baina beraien arrazoiak guztiz kontrakoak ziren, ez litzatekeela inon aipatu beharko uste baitzuten, eta gainontzeko %42k ez zuten beren iritzia aditzera eman.

EAEko herritarren erdiak baino gehiago ondoko baieztapenen kontra daude: Estatutu berri hau onartzeak Espainiaren batasuna arriskuan jartzen duelako ideiarekin (%60) eta inolako komunitate autonomok ez duela izan behar Kataluniak bere Estatutu berriarekin izango duena baino autogobernu handiagoa dionarekin (%51). Desadostasuna (%43) adostasuna (%22) baino zabalduago dago, baita, Estatutu berri honek Kataluniari autogobernu handiegia ematen diola baieztatzen denean. Bestalde, ados daudenak, kontra daudenak baino gehiago dira Estatutu honek Kataluniako Parlamentuak onartutakoa errespetatzen duela esaten denean (%41 ados daude eta %24 kontra) edota Estatutu hau ez dela nahikoa Kataluniako herriaren nahiak betetzeko esaten denean (33% eta 25%, hurrenez hurren). Gainera, %38ren iritziz, Kataluniako Estatutu berria onartzeak eragin positiboa izango du Euskadin, beste %21en ustez, gauza batzuetan eragin positiboa izango du baina besteetan negatiboa, beste %6k uste dute eragin negatiboa izango duela eta beste %17k ez duela inolako eraginik izango.

Euskadirako Estatutu Berria eginez gero, herritarren %49k uste dute horretan Euskal Herria nazioa dela esan beharko litzatekeela (%28, aldiz, horren kontra daude) eta %73k uste dute Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duela sartu beharko litzatekeela (%13ren iritziz, hori ez litzateke sartu beharko). Oro har, herritarren %44k Kataluniako Estatutu berrian planteatutakoa baino autogobernu handiagoa nahiago lukete Euskadirentzat, %24k autogobernu berdina eta bakarrik %2k nahiago lukete Kataluniak baino autogobernu txikiagoa izatea.

Beren lurraldearen interesak hobekien zeintzuek defendatzen dituzten galdetuta, EAEko herritarren %31k uste dute Kataluniako alderdiek hobeto defendatzen dituztela, beste %21ek uste dute euskal alderdiek defendatzen dituztela hobeto, beste %26k diote batzuek eta besteek berdin defendatzen dituztela eta gainontzeko %22k ez dute iritzirik eman. Gainera, herritarren erdiek (%50ek) uste dute Rodriguez Zapatero presidenteak prestasun handiagoa duela Kataluniako alderdiekin negoziatzeko, Euskadikoekin baino, %34k uste dute prestasun berdina duela batzuekin eta besteekin negoziatzeko eta bakarrik %3k uste dute prestasun handiagoa duela Euskadiko alderdiekin negoziatzeko.

*A principios de febrero de 2006, un 95% de la ciudadanía de la CAPV había oído hablar del acuerdo alcanzado a finales de enero entre el Presidente Rodríguez Zapatero y el líder de CiU, Artur Mas, sobre la reforma del Estatut de Autonomía para Cataluña, y alrededor de dos tercios de las ciudadanas y ciudadanos (67%) estaban siguiendo con interés (mucho interés o algún interés) las noticias sobre la reforma del Estatut de Cataluña. Sin embargo, únicamente un 30% de la población sabía que, tras los múltiples debates en relación a la inclusión del término “nación” en el texto, finalmente éste había sido incluido en el preámbulo, pero no en el articulado del Nuevo Estatut. Un 16% veía bien la fórmula elegida, a un 24% le parecía mal porque consideraba que el término “nación” también debería estar en el articulado, a otro 17% también le parecía mal pero por razones bien distintas, dado que pensaba que no debía haber sido incluido en ninguna parte, y el 42% restante no dió ninguna opinión.*

*Más de la mitad de la ciudadanía de la CAPV se declara en desacuerdo con que la aprobación de este nuevo Estatut ponga en peligro la unidad de España (60%) y con que ninguna otra comunidad autónoma deba tener mayor autogobierno que Cataluña con su nuevo Estatut (51%). El desacuerdo (43%) también es superior al acuerdo (22%) cuando se afirma que este nuevo Estatut da demasiado autogobierno a Cataluña. Por el contrario, el acuerdo supera al desacuerdo en relación a que este Estatut respeta lo acordado en el Parlamento Catalán (41% de acuerdo y 24% en desacuerdo) y en relación a que este Estatut es insuficiente para las aspiraciones del pueblo catalán (33% y 25%, respectivamente). Además, un 38% cree que la aprobación del nuevo Estatut para Cataluña influirá positivamente en el País Vasco, otro 21% cree que influirá positivamente para unas cosas y negativamente para otras, otro 6% cree que influirá negativamente y otro 17% que no influirá de ninguna manera.*

*En cuanto a la posible elaboración de un Nuevo Estatuto para el País Vasco, un 49% de la ciudadanía cree que en él se debería definir al País Vasco como nación (frente a un 28% que se opone a ello) y un 73% cree que debería incluirse el derecho del País Vasco a definir su propio futuro (mientras que un 13% se opone). En general, un 44% de la ciudadanía desearía mayor autogobierno para el País Vasco que el planteado en el nuevo Estatut para Cataluña, un 24% desearía el mismo autogobierno y tan sólo un 2% preferiría tener menor autogobierno que Cataluña.*

*Preguntados los ciudadanos y ciudadanas de la CAPV sobre quiénes defienden mejor los intereses de su respectivo territorio, un 31% creen que los partidos catalanes, un 21% piensa que los partidos vascos y otro 26% señala que unos y otros por igual, mientras que el 22% restante no opina. Además, la mitad de la ciudadanía (50%) cree que el Presidente Rodríguez Zapatero tiene mayor disposición a negociar con los partidos catalanes que con los vascos, un 34% cree que tiene la misma disposición para unos y otros y tan sólo un 3% opina que tiene mayor disposición para negociar con los partidos vascos.*

Iritziak banatuta daude Rodriguez Zapateroren Gobernuak Kataluniako Estatutuaren erreforma ondo kudeatu duen ala ez neurtzen denean (%31 kokatu dira jarrera bakoitzean eta gainontzeko %38k ez dute iritzirik eman). Dena dela, ondo kudeatu duela uste dutenen kopurua gehitu da 2005eko urritik 2006ko otsailera. Hala ere, gehiago dira Estatutuaren erreforma honetatik Rodriguez Zapateroren gobernua ahulduta irten dela deritzotenak (%38), indartuta irten dela uste dutenak baino (%26).

*Las opiniones se muestran divididas en relación a si el Gobierno de Rodríguez Zapatero ha gestionado bien o no la reforma del Estatut Catalán (31% en ambos casos, mientras que el 38% restante no opina). En cualquier caso, el número de quienes creen que la ha gestionado bien se ha incrementado de octubre de 2005 a febrero de 2006. Sin embargo, son algunos más quienes creen que el Gobierno de Rodríguez Zapatero ha salido debilitado de esta reforma estatutaria (38%) que quienes creen que ha salido fortalecido (26%).*

## EUROPAR BATASUNA
## *LA UNIÓN EUROPEA*

EAEko biztanleriaren erdiak baino apur bat gutxiagok (%46k) Europarekiko lotura (handia edo nahikoa) sentitzen dutela diote. Lotura handikoak jaisten joan dira 2001etik hona. EAEko herritarrek adierazitako lotura Europako batezbestekoa (%66) baino dezente txikiagoa da. Hala ere, Europar Batasunak irudi positiboa sortarazten diela diotenak (48%), irudi negatiboa sortarazten diela esan dutenak (%10) baino gehiago dira; eta, izatez, EBk sortarazitako irudi positiboa zabalduago dago EAEn, Europar Batasunean, batez beste, baino.

Herritarren erdiek (%51k) Europaren bateratzeari buruzko interesa dutela diote (interes handia edo nahikoa interes). Loturarekin gertatzen ez zen bezala, interesa handitu da 1995etik hona. Europar Batasunari buruzko informazioari dagokionez, 1 eta 10en arteko eskala batean, EAEko biztanleok 4,9 puntu ditugu (erdigunea baino pixka bat beherago: 5,5). Gure informazio maila 2001etik hona apur bat igo da eta Europako batezbestekoa baino pixka bat gorago gaude. Aurreko informazio maila adierazi badugu ere, hamar herritarretatik bakarrik bik (%19k) dakite gaur egun Europar Batasuna 25 estatuk osatzen dutela. Eta 2004an sartutako 10 estatutatik, ezagunena Polonia da (%14k dakite sartu berria dela).

Etorkizunean Turkia sartzeari dagokionez, nahiz eta gehiengoa ez osatu, gehiago dira sartzearen aldekoak (%41), kontrakoak baino (%20), eta aldeko jarrera hori zabalduago dago EAEn Europan batez beste baino. EAEko herritar gehienek (%86k) uste dute Turkia Europar Batasunean sartu ahal izateko giza eskubideak errespetatu behar izango dituela beti. Ondoko baieztapenekin ados daudenek ere gehiengoa osatu dute: Turkia nolabait Europakoa dela beren geografiarengatik (%64k), Turkia sartzeak handituko lukeela EBko herrialde garatuenetarako inmigrazioa (%58k) edota lagunduko lukeela Europako balioek eta balio musulmanek elkarri ulertzen (%50ek). Ia erdiek (%46k) Turkia, bere historiarengatik, nolabait Europakoa dela ere uste dute.

Herritarren erdien baino gehiagoren ustez (%59), Europar Batasuna interes ekonomiko eta komertzialengatik sortu zen, eta dezente gutxiago dira ondoko arrazoiengatik sortu zela deritzotenak: Europako herritarren eskubideak babesteko (%19), Europako herrien arteko gerra berriak saihesteko (%7) edota Europa, beste herrien aurrean, defendatzeko (%7).

*Algo menos de la mitad de la población de la CAPV (46%) dice sentir apego por Europa (mucho o bastante apego). Quienes sienten mucho apego van descendiendo gradualmente desde 2001. El apego sentido por la población vasca es bastante inferior a la media europea (66%). En cualquier caso, son bastantes más quienes tienen una imagen positiva de la UE (48%) que quienes tienen una imagen negativa (10%); y, de hecho, la imagen positiva respecto a la UE está algo más extendida en la CAPV que la media europea.*

*La mitad de las ciudadanas y ciudadanos (51%) dicen estar interesados (mucho o bastante) por el tema de la unificación europea. A diferencia del apego, el interés se ha incrementado desde 1995 hasta ahora. En una escala de 1 a 10, las y los vascos nos situamos en el 4,9 (algo por debajo del punto medio: 5,5) en relación a nuestra información sobre la Unión Europea. Nuestro nivel de información se ha incrementado ligeramente respecto a 2001 e incluso estamos algo por encima de la media europea. Pese al nivel de información declarado, únicamente dos de cada diez ciudadanos y ciudadanas (19%) sabe que en la actualidad la UE está formada por 25 países. Y, de los 10 estados incorporados a la UE en 2004, el más conocido es Polonia (un 14% sabe de su reciente incorporación).*

*Respecto a una futura incorporación de Turquía, sin llegar a ser mayoría, son más quienes están a favor (41%), que quienes están en contra de ello (20%), y esta postura favorable a la incorporación está más extendida en la CAPV que la media europea. La gran mayoría de la ciudadanía vasca cree que para entrar en la UE Turquía deberá respetar en todo momento los derechos humanos (86%). También son mayoría quienes creen que Turquía pertenece en parte a Europa por su geografía (64%), que la adhesión de Turquía podría incrementar la inmigración hacia países más desarrollados de la UE (58%) o que favorecería la comprensión mutua de valores europeos y musulmanes (50%). Casi la mitad (46%) también está de acuerdo con que Turquía pertenece de algún modo a Europa por su historia.*

*Más de la mitad de la ciudadanía (59%) piensa que la UE se creó por intereses económicos y comerciales, y son bastantes menos quienes creen que surgió para defender los derechos de los ciudadanos y ciudadanas europeas (19%), para evitar nuevas guerras entre países europeos (7%) o para defender a Europa de otros países (7%).*

Europako politikei dagokienez, EAEko herritarrak Europar Batasuneko estatuen arteko defentsa eta segurtasun politika bakarra izatearen alde gaude (%67; Europan batez beste, %77, baino pixka bat gutxiago), baita, nahiz eta aldekoak apur bat gutxiago izan, EBko estatuen arteko kanpo politika bakarra izatearen alde ere (%56, Europako batezbestekoa, %68, baino pixka bat gutxiago, berriro ere). Europar Batasunak Nazio Batuen Erankundean izan beharreko presentziari buruz galdetzerakoan, dezente gehiago dira (%65) estatu bakoitzeko ordezkari bat egotea nahiago dutenak, Europar Batasunaren izenean ordezkari bakarra izatea hobetsi dutenak baino (%22).

*En cuanto a las políticas europeas, las ciudadanas y ciudadanos de la CAPV nos mostramos favorables a una política común de defensa y seguridad entre los estados de la UE (67%, algo por debajo de la media europea, que es de 77%) y también, aunque el apoyo es algo menor, nos declaramos favorables a una política exterior común entre los estados de la UE respecto a otros países (56%, nuevamente por debajo de la media europea: 68%). En cuanto a la presencia de la UE en la ONU, son bastantes más quienes prefieren la presencia de un representante de cada estado (65%) que la de un único representante para toda la UE (22%).*

Arreta Euskadin jarrita, herritarren erdiek baino apur bat gehiagok (%56k) uste dute Euskadirentzat Europar Batasunaren barruan egotea gauza ona dela, beste %29ren ustez, ez da ona, ezta txarra ere, eta bakarrik %4k uste dute txarra dela. Ona delako sentsazioa 1995ean baino zabalduago dago, baina ez 2001ean izan zen haina; dena dela Europar Batasuneko batezbestekoa baino zabalduago dago. Horrela baderitzote ere, EAEko herritar gehienen ustez (%62), euroa sartzea kaltegarria izan da eta, izatez, %95ek euroak prezioak igotzen lagundu duela uste dute. Gure erkidegoan eragin izan dezaketeen gaiak aztertzen direnean Europan, Eusko Jaurlaritzaren sailburuen presentzia eskatzen dute herritarrek: %43ren ustez, arlo horretako Espainiako ministroak eta Euskadiko sailburuak joan beharko lukete, eta beste %35en ustez, bakarrik Euskadiko sailburuak joan beharko luke; soilik %9k uste dute Espainiako ministroak, berak bakarrik, joan beharko lukeela. Bestalde, herritarren erdiek baino pixka bat gehiagok (%55ek) zer edo zer entzun dute Euskadik Bruselan duen egoitzaz.

*Centrándonos en el País Vasco, algo más de la mitad de la ciudadanía (56%) cree que para el País Vasco estar dentro de la UE es una buena cosa, otro 29% cree que no es ni bueno ni malo y tan sólo un 4% opina que es malo. La sensación de que es una buena cosa es superior a la registrada en 1995, pero inferior a la de 2001; en cualquier caso es superior a la media europea. Sin embargo, la mayoría de las ciudadanas y ciudadanos de la CAPV (62%) opina que la adopción del euro ha sido una operación desventajosa y, de hecho, un 95% cree que el euro ha ayudado al incremento de precios. La ciudadanía vasca reclama la presencia de las y los consejeros vascos del Gobierno cuando en Europa se debaten temas que afectan a nuestra comunidad: un 43% cree que deberían acudir tanto el ministro español como el consejero vasco de la materia y otro 35% cree que debería acudir el consejero vasco en solitario; tan sólo un 9% cree que únicamente debe acudir el ministro español correspondiente. Por otro lado, algo más de la mitad de la ciudadanía (55%) ha oído hablar de la delegación de Euskadi en Bruselas.*

## BEGIKOTASUN POLITIKOAK
## *SIMPATÍAS POLÍTICAS*

Neurketa ezberdinetan ohikoa den moduan, EAJ da EAEko biztanleriarengan begikotasunik handiena sortarazten duen alderdia; aipamenen %20 baino gehiago jaso ditu eta (%26 otsailean eta %21 apirilean, hain zuzen ere). Gainontzeko alderdiak urruti daude, eta aipamenen kopuruak kontuan izanda, PSE-EE da hurrengoa, aipamenen %8 eta %7 jaso baititu otsailean eta apirilean, hurrenez hurren.

*Como viene siendo habitual en las distintas mediciones, el PNV es el partido que suscita mayores simpatías entre la ciudadanía de la CAPV, con más de un 20% de menciones (26% en febrero y 21% en abril). El resto de partidos quedan a distancia, siendo el siguiente en recibir mayor número de menciones el PSE-EE, con un 8% y 7% de las mismas en febrero y abril, respectivamente.*

Aipatu behar da apirilean, ETAk ekintza armatuen etenaldi iraunkorraren aldarrikapena egin ondoren, alderdi guztiek otsailean eta, are gehiago, 2005ean baino aipamen gutxiago (edo haina) jaso dituztela. Salbuespen bakarra EHAKri dagokio, aipamenak %3tik %5era gehitu baititu.

*Hay que señalar que en la medición de abril, tras el anuncio de alto el fuego permanente de ETA, todos los partidos han visto reducirse (o mantenerse) sus menciones respecto a febrero e, incluso, respecto a 2005, a excepción de EHAK, que ha incrementado las mismas de un 3% a un 5%.*

Bestalde, erantzun ez dutenak dezente gehitu dira, eta apirilean bildumako daturik altuena jaso da (%34). Gainera, hamar herritarretatik bik esan dute alderdi batek ere ez diela begikotasunik sortarazten (%20k, 2006ko neurketa bietan).

*Por otro lado, la no respuesta ha experimentado un notable incremento, dándose en abril el registro más elevado de toda la serie (34%). Además, dos de cada diez ciudadanos y ciudadanas señalan que ningún partido le cae bien (20% en ambas mediciones de 2006).*

# KATALUNIAKO AUTONOMIA ESTATUTU BERRIA
# *EL NUEVO ESTATUTO DE AUTONOMÍA DE CATALUÑA*

**Pasa den urtarrilaren 22an Rodriguez Zapatero Espainiako gobernuko presidenteak eta Artur Mas CIUko buruzagiak Kataluniako Estatutua erreformatzeko akordioa lortu zuten. Entzun al duzu ezer horretaz?**

*El pasado 22 de Enero el presidente del Gobierno español, Rodríguez Zapatero, y el líder de CIU, Artur Mas, alcanzaron un acuerdo sobre la reforma del Estatut de autonomía para Cataluña. ¿Ha oído Ud. hablar de ello?*

| | 2006KO OTSAILA / *Febrero 2006* |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 95 |
| **Ez** / *No* | 4 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 1 |
| | 100% |

**Oro har, nolako interesaz jarraitzen dituzu Kataluniarako Estatutu Berriari buruzko albisteak: interes handiaz, nolabaiteko interesaz edo batere interesik gabe?**

*En general, ¿con qué interés está siguiendo Ud. las noticias sobre el Nuevo Estatuto para Cataluña: con mucho interés, algún interés o ningún interés?*

| | 2005EKO URRIA / *Octubre 2005* | 2005EKO AZAROA / *Noviembre 2005* | 2006KO OTSAILA / *Febrero 2006* |
|---|---|---|---|
| **Interes handiaz** / *Mucho interés* | 17 | 14 | 15 |
| **Nolabaiteko interesaz** / *Algún interés* | 52 | 49 | 52 |
| **Batere interesik gabe** / *Ningún interés* | 17 | 32 | 29 |
| **Ez dut horretaz albisterik ikusi/entzun/irakurri** [1] / *No he visto/oído/leído ninguna noticia sobre esto*[1] | 11 | 1 | 1 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 3 | 5 | 3 |
| | 100% | 100% | 100% |

**Negoziazioetan asko eztabaidatu zen Kataluniarako Estatut horrek, hango Parlamentuak esandako moduan, Katalunia nazioa dela esan behar ote zuen. Ba al dakizu azkenean nola geratu den hori?**

*En las negociaciones se discutió mucho sobre si en ese nuevo Estatut para Cataluña se debería decir que Cataluña es una nación, tal y como planteaba el Parlamento Catalán. ¿Sabe Ud. cómo ha quedado esto finalmente?*

| | 2006KO OTSAILA / *Febrero 2006* |
|---|---|
| **Nazio hitza kendu egin da Estatutetik** / *Se ha eliminado el término nación del Estatut* | 9 |
| **Lehenengo artikuluan dago, Kataluniako Parlamentuan onartu zen moduan** / *Se mantiene en el artículo 1º del Estatut, tal y como se aprobó en el Parlamento Catalán* | 3 |
| **Estatuteko hitzaurrean dago, baina ez artikuluetan** / *Está en el preámbulo del Estatut pero no en los artículos* | 30 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 58 |
| | 100% |

**Azkenean nazio hitza Estatuteko hitzaurrean dago, baina ez artikuluetan. Zuri zer iruditzen zaizu nazio hitza hitzaurrean eta ez artikuluetan egotea?**

*Al final, el término nación está en el preámbulo del Estatut pero no en los artículos. ¿A Ud. qué le parece que el término nación esté en el preámbulo y no en el articulado?*

| | 2006KO OTSAILA / *Febrero 2006* |
|---|---|
| **Ondo** / *Bien* | 16 |
| **Txarto, artikuluetan egon beharko litzatekeelako** / *Mal, porque debería estar en el articulado* | 24 |
| **Txarto, ez litzatekeelako inon aipatu beharko** / *Mal, porque no se debería incluir el término nación en ninguna parte* | 17 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 42 |
| | 100% |

1 ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.*

**Ondoren, esadazu gehienbat ados ala gehienbat kontra zauden ondoko baieztapenekin:**
*A continuación dígame si está Ud. más bien de acuerdo o más bien en desacuerdo con las siguientes afirmaciones sobre el nuevo Estatut de Cataluña:*

**2006KO OTSAILA** / *FEBRERO 2006*

| | GEHIENBAT ADOS *MÁS BIEN DE ACUERDO* | EZ ADOS EZ KONTRA [1] *NI DE ACUERDO NI EN DESACUERDO* [1] | GEHIENBAT KONTRA *MÁS BIEN EN DESACUERDO* | ED-EE *NS-NC* |
|---|---|---|---|---|
| **Estatut berri hau onartzeak arriskuan jartzen du Espainiaren batasuna** / *La aprobación de este Estatut pone en peligro la unidad de España* | 22 | 3 | 60 | 15 |
| **Estatut hau ez da nahikoa Kataluniako herriaren nahiak betetzeko** / *Este Estatut es insuficiente para las aspiraciones del pueblo catalán* | 33 | 5 | 25 | 36 |
| **Estatut honek Kataluniako Parlamentuak gehiengoz onartutakoa errespetatzen du** / *Este Estatut respeta lo acordado por mayoría en el Parlamento Catalán* | 41 | 3 | 24 | 32 |
| **Estatut honek autogobernu handiegia ematen dio Kataluniari** / *Este Estatut da demasiado autogobierno a Cataluña* | 22 | 3 | 43 | 32 |
| **Inolako komunitate autonomok ez du izan behar Kataluniak bere Estatut berriarekin izango duena baino autogobernu handiagoa** / *Ninguna otra comunidad autónoma debe tener más autogobierno que el que tendrá Cataluña con su nuevo Estatut* | 18 | 4 | 51 | 26 |




**Euskadirako estatutu berria eginez gero, horretan Euskal Herria nazioa dela esan beharko litzateke?**
*En el caso de elaborarse un nuevo Estatuto para el País Vasco ¿en él se debería definir al País Vasco como nación?*

| | **2006KO OTSAILA** *FEBRERO 2006* |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 49 |
| **Ez** / *No* | 28 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 24 |
| | 100% |

**Jakingo duzunez, Kataluniako estatut berrian ez da aipatzen Kataluniako herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea. Euskadirako estatutu berria egingo balitz, sartu beharko litzateke Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea, ala ez?**
*Como Ud. seguramente sabe, en el nuevo Estatut catalán no se menciona el derecho del pueblo catalán a decidir su propio futuro. Si se elaborase un nuevo Estatuto para el País Vasco ¿debería incluirse el derecho del pueblo vasco a decidir su propio futuro o no?*

| | **2006KO OTSAILA** *FEBRERO 2006* |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 73 |
| **Ez** / *No* | 13 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 14 |
| | 100% |

1 ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.*

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Enero – Junio 2006 Urtarrila - Ekaina

**Zuk zeuk zer nahiago zenuke Euskadirako: Kataluniako Estatut berrian planteatutakoa baino autogobernu handiagoa, autogobernu berdina edo autogobernu txikiagoa?**

*Ud. personalmente, ¿desearía para el País Vasco mayor autogobierno, el mismo autogobierno o menor autogobierno que el planteado en el nuevo Estatut Catalán?*

| | 2006KO OTSAILA / *FEBRERO 2006* |
|---|---|
| Autogobernu handiagoa / *Mayor autogobierno* | 44 |
| Autogobernu berdina / *El mismo autogobierno* | 24 |
| Autogobernu txikiagoa / *Menor autogobierno* | 2 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 30 |
| | 100% |




**Zure ustez, Kataluniako Estatut berria onartzeak Euskadin eragin positiboa izango du, eragin negatiboa izango du, gauza batzuetan eragin positiboa izango du eta besteetan negatiboa edo ez du inolako eraginik izango?**

*¿Cree Ud. que la aprobación del nuevo Estatut de Cataluña influirá positivamente en el País Vasco, influirá negativamente, Influirá positivamente para unas cosas y negativamente para otras o no influirá de ninguna manera?*

| | 2006KO OTSAILA / *FEBRERO 2006* |
|---|---|
| Eragin positiboa izango du / *Influirá positivamente* | 38 |
| Eragin negatiboa izango du / *Influirá negativamente* | 6 |
| Gauza batzuetan eragin positiboa eta besteetan negatiboa izango du / *Influirá positivamente para unas cosas y negativamente para otras* | 21 |
| Ez du inolako eraginik izango / *No influirá de ninguna manera* | 29 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 18 |
| | 100% |

**Zure iritziz, nortzuek defendatzen dituzte hobeto beren interesak: Kataluniako alderdiek Kataluniako interesak edo Euskadiko alderdiek Euskadiko interesak?**

*En su opinión, quiénes defienden mejor sus intereses: los partidos catalanes los intereses de Cataluña o los partidos vascos los intereses del País Vasco?*

| | 2006KO OTSAILA / *FEBRERO 2006* |
|---|---|
| Kataluniakoek hobeto / *Los catalanes mejor* | 31 |
| Euskadikoek hobeto / *Los vascos mejor* | 21 |
| Batzuek eta besteek berdin [1] / *Unos y otros igual* [1] | 26 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 22 |
| | 100% |

**Zure iritziz, Rodriguez Zapatero presidenteak nortzuekin du negoziatzeko prestasun (disposizio) handiagoa: Kataluniako alderdiekin, Euskadiko alderdiekin edo prestasun berdina du batzuekin eta besteekin?**

*A su juicio, con quiénes tiene mayor disposición a negociar el presidente Rodríguez Zapatero: con los partidos catalanes, con los partidos vascos o tiene la misma disposición con unos y otros?*

| | 2006KO OTSAILA / *FEBRERO 2006* |
|---|---|
| Kataluniakoekin / *Con los catalanes* | 50 |
| Euskadikoekin / *Con los vascos* | 3 |
| Prestasun berdina du batzuekin eta besteekin / *La misma disposición con unos y otros* | 34 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 13 |
| | 100% |

**Uste duzu Zapateroren Gobernuak ondo gestionatu duela Kataluniako Estatutaren erreforma?**

*¿Cree Ud. que el Gobierno de Zapatero ha gestionando bien la reforma del Estatuto catalán?*

| | 2005EKO URRIA / *OCTUBRE 2005* | 2006KO OTSAILA / *FEBRERO 2006* |
|---|---|---|
| Bai / *Sí* | 21 | 31 |
| Ez / *No* | 36 | 31 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 43 | 38 |
| | 100% | 100% |




1 ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.*

# IRITZIAK - 11

**Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea**
**Enero – Junio 2006 Urtarrila - Ekaina**

**Zure ustez Zapateroren Gobernua indartuta edo ahulduta irten da Estatutaren erreforma honetatik?**
*¿Cree Ud. que el Gobierno de Zapatero ha salido fortalecido o debilitado de esta reforma estatutaria?*

| | ESPAINIA / *ESPAÑA* [2] 2006KO URTARRILA *ENERO 2006* | KATALUNIA / *CATALUÑA* [2] 2006KO URTARRILA *ENERO 2006* | EAE / *CAPV* 2006KO OTSAILA *FEBRERO 2006* |
|---|---|---|---|
| **Indartuta** / *Fortalecido* | 26 | 35 | 26 |
| **Ez indartuta ez ahulduta** [1] / *Ni fortalecido ni debilitado* [1] | 7 | 9 | 10 |
| **Ahulduta** / *Debilitado* | 57 | 47 | 38 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 10 | 9 | 26 |
| | 100% | 100% | 100% |

## EUROPAR BATASUNA
## *LA UNIÓN EUROPEA*

**Esango al didazu nolako lotura sentitzen duzun Europarekin?**
*Dígame ¿hasta qué punto siente apego por Europa?*

| | 2001EKO URRIA [3] *OCTUBRE 2001* [3] | 2004KO APIRILA [3] *ABRIL 2004* [3] | 2006KO MARTXOA *MARZO 2006* |
|---|---|---|---|
| **Lotura handia** / *Mucho apego* | 24 | 18 | 9 |
| **Nahikoa lotura** / *Bastante apego* | 32 | 29 | 37 |
| **Lotura txikia** / *Poco apego* | 25 | 28 | 27 |
| **Inolako loturarik ez** / *Ningún apego* | 12 | 15 | 13 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 7 | 11 | 14 |
| | 100% | 100% | 100% |




* Europako Batzordea (2005): 63. Eurobarometroa, 2005eko maiatza-ekaina. / *Comisión Europea (2005): Eurobarometro 63, mayo-junio 2005.*
** Lotuta: lotura handia + nahikoa lotura / *Con apego: mucho apego + bastante apego*

**Oro har, Zuri Europar Batasunak nolako irudia sortarazten dizu: oso irudi positiboa, nahikoa positiboa, neutroa, nahikoa negatiboa edo oso negatiboa?**
*En general, ¿a Ud. la Unión Europea le sugiere una imagen muy positiva, bastante positiva, neutra, bastante negativa o muy negativa?*

| | 2006KO MARTXOA *MARZO 2006* |
|---|---|
| **Oso positiboa** / *Muy positiva* | 14 |
| **Nahikoa positiboa** / *Bastante positiva* | 34 |
| **Neutroa** / *Neutra* | 32 |
| **Nahikoa negatiboa** / *Bastante negativa* | 8 |
| **Oso negatiboa** / *Muy negativa* | 2 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 9 |
| | 100% |




* Europako Batzordea (2005): 64. Eurobarometroa, 2005eko urria-azaroa. / *Comisión Europea (2005): Eurobarometro 64, octubre-noviembre 2005.*
** Irudi positiboa: oso positiboa + nahikoa positiboa / *Imagen positiva: muy positiva + bastante positiva*

1 ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.*
2 OPINA INSTITUA: 2006KO URTARRILA / *INSTITUTO OPINA: ENERO 2006*
3 INKESTAK ETXEZ ETXE EGIN ZIREN ETA EZ TELEFONOZ / *LAS ENCUESTAS FUERON DOMICILIARIAS Y NO TELEFÓNICAS*

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Enero – Junio **2006** Urtarrila - Ekaina

**Zenbateko interesa sortzen dizu Europako Batasunaren gaiak?**
*¿Cuánto le interesa el tema de la unificación europea?*

| | 1995EKO AZAROA [1] / NOVIEMBRE 1995 [1] | 1997KO ABENDUA / DICIEMBRE 1997 | 2001EKO URRIA [1] / OCTUBRE 2001 [1] | 2006KO MARTXOA / MARZO 2006 |
|---|---|---|---|---|
| **Interes handia** / *Mucho* | 6 | 9 | 10 | 13 |
| **Nahikoa interes** / *Bastante* | 33 | 34 | 32 | 38 |
| **Interes txikia** / *Poco* | 40 | 36 | 38 | 34 |
| **Batere interesik ez** / *Nada* | 17 | 19 | 15 | 12 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 3 | 2 | 5 | 3 |
| | 100% | 100% | 100% | 100% |

**1etik 10era doan eskala batean, zein neurritan zaude informatuta Europar Batasunari, bere politikei, instituzioei eta erakundeei buruz?**
*En una escala de 1 a 10 ¿hasta qué punto se siente informado sobre la Unión Europea, sus políticas, instituciones y organismos?*

| | 2001EKO URRIA [1] / OCTUBRE 2001 | 2006KO MARTXOA / MARZO 2006 |
|---|---|---|
| **Oso informatuta (9-10)** / *Muy informado (9-10)* | 2 | 2 |
| **Nahikoa informatuta (6-8)** / *Bastante informado (6-8)* | 26 | 35 |
| **Zerbait informatuta (3-5)** / *Algo informado (3-5)* | 53 | 45 |
| **Batere informaturik ez (1-2)** / *Nada informado (1-2)* | 15 | 12 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 3 | 6 |
| | 100% | 100% |



* Europako Batzordea (2005): 64. Eurobarometroa, 2005eko urria-azaroa. / *Comisión Europea (2005): Eurobarometro 64, octubre-noviembre 2005.*

**Badakizu zenbat herrialdek osatzen duten gaur egun Europar Batasuna?**
*¿Sabe cuántos países forman actualmente la Unión Europea?*

| | 1995EKO AZAROA [1] / NOVIEMBRE 1995 | 2001EKO URRIA [1] / OCTUBRE 2001 | 2006KO MARTXOA / MARZO 2006 |
|---|---|---|---|
| **25 herrialdek** / *25 países* | - | - | 19 |
| **15 herrialdek** / *15 países* | 17 | 29 | 5 |
| **Beste erantzunak** / *Otras respuestas* | 46 | 28 | 21 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 35 | 43 | 55 |
| | 100% | 100% | 100% |

**2004ko maiatzaren batean Europar Batasuna 15 estatu izatetik 25 estatu izatera pasatu zen. Esan ahal dizkidazu 2004an sartutako 10 estatu berri horietatik 2? [2]**
*El 1 de mayo de 2004 la Unión Europea pasó de tener 15 a 25 estados miembros. ¿Podría decirme 2 estados de los 10 nuevos que se incorporaron en el 2004? [2]*

| | 2006KO MARTXOA / MARZO 2006 |
|---|---|
| **Polonia** / *Polonia* | 14 |
| **Letonia** / *Letonia* | 7 |
| **Lituania** / *Lituania* | 6 |
| **Txekiar errepublika** / *República Checa* | 5 |
| **Hungaria** / *Hungria* | 4 |
| **Eslovakia** / *Eslovaquia* | 3 |
| **Estonia** / *Estonia* | 3 |
| **Eslovenia** / *Eslovenia* | 2 |
| **Malta** / *Malta* | 1 |
| **Zipre** / *Chipre* | 0 |
| **Beste erantzunak** / *Otras respuestas* | 14 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 63 |

1 INKESTAK ETXEZ ETXE EGIN ZIREN ETA EZ TELEFONOZ / *LAS ENCUESTAS FUERON DOMICILIARIAS Y NO TELEFÓNICAS*
2 GALDERA IREKIA. INKESTATUEI EZ ZITZAIEN ERANTZUN AUKERARIK ADITZERA EMAN ETA BI ERANTZUN EMAN AHAL ZITUZTEN / *PREGUNTA ABIERTA. A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS NO SE LES SUGIRIÓ NINGUNA RESPUESTA Y PODÍAN DAR DOS.*

# IRITZIAK - 11

**Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea**
**Enero – Junio 2006 Urtarrila - Ekaina**

**Turkia etorkizunean Europar Batasunean sartzearen alde edo kontra egongo zinateke?**

*¿Ud. estaría a favor o en contra de la incorporación en el futuro de Turquía a la Unión Europea?*

**2006KO MARTXOA**
MARZO 2006

**Alde** / *A favor* ........................................................ 41
**Kontra** / *En contra* .................................................. 20
**Ed-Ee** / *Ns-Nc* ........................................................ 39

100%



* Europako Batzordea (2005): 64. Eurobarometroa, 2005eko urria-azaroa. /
*Comisión Europea (2005): Eurobarometro 64, octubre-noviembre 2005.*

**Turkiari buruzko ondoko baieztapen bakoitzarentzat, esadazu guztiz ados, gehienbat ados, gehienbat kontra edo guztiz kontra zauden:**

*Para cada una de las siguientes afirmaciones sobre Turquía, dígame si está Ud. totalmente de acuerdo, más bien de acuerdo, más bien en desacuerdo o totalmente en desacuerdo*

**2006KO MARTXOA** / MARZO 2006

ADOS[1]
DE ACUERDO[1]

**Turkia nolabait Europakoa da bere geografiarengatik** /
*Turquía pertenece en parte a Europa por su geografía* ........................................ 64

**Turkia nolabait Europakoa da bere historiarengatik** /
*Turquía pertenece de algún modo a Europa por su historia* ........................................ 46

**Turkia Europar Batasunean sartzeak lagunduko luke europako balioek eta balio musulmanek elkarri ulertzen** /
*La adhesión de Turquía a la Unión Europea favorecería la comprensión mutua de valores europeos y musulmanes* ........ 50

**Turkia Europar Batasunean sartzeak handituko luke Europar Batasuneko herri garatuenetarantzako inmigrazio arriskua** /
*La adhesión de Turquía podría incrementar el riesgo de inmigración hacía países más desarrollados de la Unión Europea* ........ 58

**Turkiak, hamar bat urte barru Europar Batasunean sartu ahal izateko, giza eskubideak errespetatu behar izango ditu beti** /
*Para entrar en la Unión Europea en unos diez años Turquía tendrá que respetar en todo momento los derechos humanos* ........ 86

**Orain Europar Batasuna sortzeko arrazoiei buruzko lau iritzi irakurriko dizkizut. Esadazu, zure ustez, horietatik zein izan zen Europar Batasuna sortzeko arrazoirik garrantzitsuena:**

*A continuación le voy a leer cuatro opiniones sobre por qué se creó la Unión Europea. Dígame, cuál de ellas cree Ud. que fue la razón principal por la que se creó la UE:*

**2006KO MARTXOA** / MARZO 2006

**Interes ekonomiko eta komertzialengatik** / *Por intereses económicos y comerciales* ........................ 59
**Europako herrien arteko gerra berriak sahiesteko** / *Para evitar nuevas guerras entre países europeos* ........ 7
**Europa, beste herrien aurrean, defendatzeko** / *Para defender a Europa de otros países* ........................ 7
**Europako herritarren eskubideak babesteko** / *Para defender los derechos de los ciudadanos y ciudadanas europeas* ........ 19
**Beste erantzunak**[2] / *Otras respuestas*[2] ........................................................ 1
**Ed-Ee** / *Ns-Nc* ........................................................ 7

100%

**Esadazu, mesedez, Europar Batasunaren estatuen arteko defentsa eta segurtasun politika bakarra izatearen alde edo kontra zauden.**

*Dígame, por favor, si está Ud. a favor o en contra de una política común de defensa y seguridad entre los estados de la Unión Europea*

**2006KO MARTXOA**
MARZO 2006

**Alde** / *A favor* ........................................................ 67
**Kontra** / *En contra* .................................................. 14
**Ed-Ee** / *Ns-Nc* ........................................................ 19

100%



* Europako Batzordea (2005): 64. Eurobarometroa, 2005eko urria-azaroa. /
*Comisión Europea (2005): Eurobarometro 64, octubre-noviembre 2005.*

1 ADOS: GUZTIZ ADOS + GEHIENBAT ADOS / DE ACUERDO: TOTALMENTE DE ACUERDO + MÁS BIEN DE ACUERDO.
2 ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.

**Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea**
**Enero – Junio 2006 Urtarrila - Ekaina**




* Europako Batzordea (2005): 64. Eurobarometroa, 2005eko urria-azaroa. /
*Comisión Europea (2005): Eurobarometro 64, octubre-noviembre 2005.*

**Eta, beste herrien aurrean, Europar Batasunaren estatuen arteko kanpo politika bakarra izatearen alde edo kontra zaude?**

*¿Y está Ud. a favor o en contra de una política exterior común entre los estados de la Unión Europea respecto a otros países?*

| | 2006KO MARTXOA / *Marzo 2006* |
|---|---|
| **Alde** / *A favor* | 56 |
| **Kontra** / *En contra* | 19 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 25 |
| | 100% |

**Europar Batasunak Nazio Batuen Erakundean (ONUn) izan beharreko presentziari dagokionez, zuk zer nahiago zenuke: estatu bakoitzeko ordezkari bat egotea edo Europar Batasunaren izenean ordezkari bakarra egotea?**

*En cuanto a la presencia de la Unión Europea en la ONU, ¿qué preferiría Ud.: que hubiera un representante de cada estado o que hubiera un único representante para toda la Unión Europea?*

| | 2006KO MARTXOA / *Marzo 2006* |
|---|---|
| **Estatu bakoitzeko ordezkari bat egotea** / *Un representante de cada estado* | 65 |
| **Europar Batasunaren izenean ordezkari bakarra egotea** / *Un único representante para toda la Unión Europea* | 22 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 13 |
| | 100% |

**Orain Euskadin jarriko dugu arreta. Zure ustez, Euskadirentzat Europar Batasunaren barruan egotea gauza ona da, gauza txarra da, edo ez da ona ezta txarra ere?**

*Centrándonos ahora en el País Vasco, ¿cree que, en general, para el País Vasco estar dentro de la Unión Europea es una buena cosa, una mala cosa o no es ni buena ni mala?*

| | 1995EKO AZAROA[1] / *Noviembre 1995*[1] | 1997KO ABENDUA / *Diciembre 1997* | 2001EKO URRIA[1] / *Octubre 2001*[1] | 2006KO MARTXOA / *Marzo 2006* |
|---|---|---|---|---|
| **Gauza ona da** / *Una buena cosa* | 45 | 55 | 68 | 56 |
| **Ez ona ezta txarra ere** / *Ni buena ni mala* | 33 | 29 | 19 | 29 |
| **Gauza txarra da** / *Una mala cosa* | 15 | 6 | 4 | 4 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 8 | 9 | 9 | 11 |
| | 100% | 100% | 100% | 100% |




* Europako Batzordea (2006): Special Eurobarometer 251: "The future of Europe", 2006ko otsaila-martxoa. /
*Comisión Europea (2006): Special Eurobarometer 251: "The future of Europe", febrero-marzo 2006.*

1 INKESTAK ETXEZ ETXE EGIN ZIREN ETA EZ TELEFONOZ / *Las encuestas fueron domiciliarias y no telefónicas*

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Enero – Junio **2006** Urtarrila - Ekaina

**Orain euroari buruz hitz egingo dugu. Zure ustez, euroa ezartzea, oro har, onuragarria izan da Euskadirentzat edo, aldiz, kaltegarria izan da?**

*Vamos a pasar a hablar del euro. En su opinión, ¿para el País Vasco la adopción del euro ha sido, en general, una operación ventajosa o más bien lo contrario, ha sido una operación desventajosa?*

| | 2006KO MARTXOA / *MARZO 2006* |
|---|---|
| **Onuragarria** / *Ventajosa* | 24 |
| **Kaltegarria** / *Desventajosa* | 62 |
| **Ez bata ez bestea, ez da ezer aldatu** [1] / *Ni una cosa ni otra, no cambia nada* [1] | 6 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 8 |
| | 100% |




Euroa ezartzeari buruzko iritzia / *Opinión sobre la adopción del euro* *

* Europako Batzordea (2005): 175. Flash Eurobarometroa, 2005eko urria. / *Comisión Europea (2005): Flash Eurobarometro 175, octubre 2005.*




Prezioen bilakeran euroak izandako eragina / *Influencia del euro en la evolución de los precios* *

* Europako Batzordea (2005): 175. Flash Eurobarometroa, 2005eko urria. / *Comisión Europea (2005): Flash Eurobarometro 175, octubre 2005.*

**Azken lau urteotan prezioek izandako bilakaerari begira, zure ustez, euroak prezioak igotzen lagundu du, prezioen igoera mugatu du edo euroak ez du inolako eraginik izan prezioetan?**

*En relación a la evolución de los precios en los últimos cuatro años, diría Ud. que el euro ha ayudado al incremento de precios, ha limitado el incremento de precios o el euro no ha tenido ningún impacto en los precios?*

| | 2006KO MARTXOA / *MARZO 2006* |
|---|---|
| **Euroak prezioak igotzen lagundu du** / *Ha ayudado al incremento de precios* | 95 |
| **Euroak prezioen igoera mugatu du** / *Ha limitado el incremento de precios* | 0 |
| **Euroak ez du inolako eraginik izan prezioetan** / *El euro no ha tenido ningún impacto en los precios* | 2 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 2 |
| | 100% |

**Europar Batasunean gai konkretu bat eztabaidatzen denean Ministroen Kontseilua batzen da eta bertara estatu bakoitzeko arlo horretako ministroak joaten dira. Aztertzen den gaia Euskadiri buruzkoa denean, nork edo nortzuek uste duzu joan beharko luketela kontseilu horretara?**

*Cuando en Europa se debate un tema concreto se reúne el Consejo de Ministros y a él acuden los Ministros de cada País encargados de esa materia. Cuando el tema a debatir afecta a la Comunidad Autónoma del País Vasco, ¿quién o quiénes cree que deberían acudir a ese Consejo?*

| | 2001EKO URRIA [2] / *OCTUBRE 2001* [2] | 2006KO MARTXOA / *MARZO 2006* |
|---|---|---|
| **Arlo horretako Euskadiko sailburuak** / *El Consejero vasco de la materia* | 35 | 35 |
| **Arlo horretako Espainiako ministroak** / *El Ministro español de la materia* | 10 | 9 |
| **Biek** / *Ambos* | 41 | 43 |
| **Beste batzuek** / *Otros* | 2 | 1 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 12 | 12 |
| | 100% | 100% |

**Entzun al duzu ezer Euskadik Bruselan duen egoitzaz?**

*¿Ha oído Ud. hablar de la delegación de Euskadi en Bruselas?*

| | 2006KO MARTXOA / *MARZO 2006* |
|---|---|
| **Bai** / *Sí* | 54 |
| **Ez** / *No* | 41 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 5 |
| | 100% |




Euskadiren Bruselako egoitzaren ezagutza / *Conocimento de la delegación de Euskadi en Bruselas*

1 ERANTZUN AUKERA HAU EZ ZITZAIEN INKESTATUEI IRAKURRI / *ESTA OPCIÓN DE RESPUESTA NO SE LES LEYÓ A LOS ENTREVISTADOS Y ENTREVISTADAS.*
2 INKESTAK ETXEZ ETXE EGIN ZIREN ETA EZ TELEFONOZ / *LAS ENCUESTAS FUERON DOMICILIARIAS Y NO TELEFÓNICAS*

# IRITZIAK - 11

Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Enero – Junio **2006** Urtarrila - Ekaina

## BEGIKOTASUN POLITIKOAK
## *SIMPATÍAS POLÍTICAS*

**Esango didazu Eusko Legebiltzarrean dauden partiduetatik zuk zein duzun gustukoen?**
*¿Me podría decir qué partido político con representación en el Parlamento Vasco le cae a Ud. mejor?*

| | 2001 *2001** | 2002 *2002** | 2003 *2003** | 2004 *2004** | 2005 *2005** | 2006 OTS *FEB 2006* | 2006 APIRILA *ABRIL 2006* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EAJ/PNV** | 27 | 22 | 20 | 20 | 23 | 26 | 21 |
| **PSE-EE** | 7 | 7 | 4 | 13 | 9 | 8 | 7 |
| **EHAK** / PCTV ** | 5 | 4 | 4 | 5 | 3 | 3 | 5 |
| **Ezker Batua (IU)** | 6 | 4 | 2 | 5 | 5 | 5 | 4 |
| **EA** | 4 | 4 | 3 | 3 | 4 | 5 | 4 |
| **PP** | 4 | 5 | 5 | 4 | 3 | 3 | 3 |
| **Aralar** | -- | -- | 5 | 2 | 2 | 2 | 1 |
| **Denak ikusten ditut ondo**/ *Todos igual de bien* | 3 | 2 | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| **Bat ere ez dut ondo ikusten** / *Ninguno me cae bien* | 21 | 25 | 25 | 22 | 22 | 20 | 20 |
| **Ed-Ee** / *Ns-Nc* | 24 | 27 | 32 | 25 | 27 | 26 | 34 |
| | 100% | 100% | 100% | 100% | 100% | 100% | 100% |

*** Datu horiek garai horretan eginiko ikerketen emaitzetatik ateratako batezbestekoak dira: batezbestekoak egitean lehenengo dezimalaren borobiltzea egin da eta horregatik batuketa %100 baino altuagoa suerta daiteke** / *Estos datos son medias obtenidas entre los resultados de los estudios realizados en este período de tiempo; debido al redondeo del primer decimal efectuado al realizar las medias, la suma total puede ser diferente a 100%.*

**** Aurreko urteetan EH, Batasuna edo, zehaztu barik, ezker abertzaleko beste talde batzuei zegozkien erantzunak batzen ziren kategoria honetan** / *En años anteriores en esta categoría se recogían las respuestas correspondientes a EH, Batasuna u otros grupos de la izquierda abertzale sin especificar.*



Gabinete de Prospección Sociológica – Prospekzio Soziologikoen Kabinetea
Enero – Junio 2006 Urtarrila - Ekaina

# ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA

## LEHENENGO LAGINALDIA (otsailak 2-4) / PRIMERA OLEADA (2-4 de febrero)

**EAEko 18 urte eta gehiagoko populazioari telefonoz egindako 1000 elkarrizketa (300 Araban, 400 Bizkaian eta 300 Gipuzkoan), 20na inkestako 50 bide aleatorioren bitartez, eta ondoren sexu, adin eta lan egoeraren araberako kuotak erabiliz elkarrizketatuak aukeratuz. Laginaren balizko errakuntza teorikoa ±3,2koa litzateke, %95,5eko konfiantza mailarentzat eta p=q=0,5 delarik. Datu bilketa 2006ko otsailaren 2 eta 4 bitartean egin zen.**

**Espainiako Estatuko eta Kataluniako datuekin konparazioa egiteko, Opina Institutuak El País egunkariarentzat 2006ko urtarrilean egindako telefonozko inkestatik hartu dira datuak.**

*1000 entrevistas (300 en Araba, 400 en Bizkaia y 300 en Gipuzkoa) realizadas por teléfono a la población de 18 o más años de la CAPV a partir de 50 rutas aleatorias de 20 encuestas cada una, con selección posterior según cuotas de sexo, edad y situación laboral. El error muestral teórico hipotético sería de ± 3,2 para un nivel de confianza del 95,5% y siendo p=q=0,5. La recogida de la información se realizó del 2 al 4 de febrero de 2006.*

*Para la comparación con los datos del Estado Español y de Cataluña, se parte de una encuesta telefónica realizada por el Instituto Opina para el diario El País en enero de 2006.*

## BIGARREN LAGINALDIA (martxoak 3) / SEGUNDA OLEADA (3 de marzo)

**EAEko 18 urte eta gehiagoko populazioari telefonoz egindako 400 elkarrizketa, 20na inkestako 20 bide aleatorioren bitartez, eta ondoren sexu, adin eta lan egoeraren araberako kuotak erabiliz elkarrizketatuak aukeratuz. Laginaren balizko errakuntza teorikoa ±5,0koa litzateke, %95,5eko konfiantza mailarentzat eta p=q=0,5 delarik. Datu bilketa 2006ko martxoaren 3an egin zen.**

**Europar Batasuneko datuekin konparazioa egiteko, Europako Batzordeak 15 urte eta gehiagoko Europako populazioari egindako inkesta desberdinetatik hartu dira datuak. Kasu batzuetan inkestak etxez-etxe egin ziren, ondokoetan, hain zuzen ere: 63. Eurobarometroa (2005eko maiatza-ekaina), 64. Eurobarometroa (2005eko urria-azaroa) eta “Special Eurobarometer 251: The future of Europe” (2006ko otsaila-martxoa); eta beste kasu batean telefonoz egin zen baina bakarrik “eurozona” osatzen duten 12 estatuetan; hauxe da ikerketa hori: “175. Flash eurobarometroa” (2005eko urria).**

*400 entrevistas realizadas por teléfono a la población de 18 o más años de la CAPV a partir de 20 rutas aleatorias de 20 encuestas cada una, con selección posterior según cuotas de sexo, edad y situación laboral. El error muestral teórico hipotético sería de ± 5,0 para un nivel de confianza del 95,5% y siendo p=q=0,5. La recogida de la información se realizó el 3 de marzo de 2006.*

*Para la comparación con los datos de la Unión Europea, se parte de datos procedentes de distintas encuestas realizadas por la Comisión Europea entre la población europea de 15 y más años. En algunos casos se trata de encuestas domiciliarias: “Eurobarómetro 63” (mayo-junio 2005), “Eurobarómetro 64” (octubre-noviembre 2005) y “Special eurobarometer 251: The future of Europe” (febrero-marzo 2006); y en otro caso se trata de una encuesta telefónica realizada, únicamente, en los 12 estados de la “eurozona”, nos referimos, concretamente, al estudio “Flash Eurobarómetro 175” (octubre 2005).*

## HIRUGARREN LAGINALDIA (apirilak 3-4) / TERCERA OLEADA (3-4 de abril)

**EAEko 18 urte eta gehiagoko populazioari telefonoz egindako 1000 elkarrizketa (300 Araban, 400 Bizkaian eta 300 Gipuzkoan), 20na inkestako 50 bide aleatorioren bitartez, eta ondoren sexu, adin eta lan egoeraren araberako kuotak erabiliz elkarrizketatuak aukeratuz. Laginaren balizko errakuntza teorikoa ±3,2koa litzateke, %95,5eko konfiantza mailarentzat eta p=q=0,5 delarik. Datu bilketa 2006ko apirilaren 3 eta 4 bitartean egin zen.**

*1000 entrevistas (300 en Araba, 400 en Bizkaia y 300 en Gipuzkoa) realizadas por teléfono a la población de 18 o más años de la CAPV a partir de 50 rutas aleatorias de 20 encuestas cada una, con selección posterior según cuotas de sexo, edad y situación laboral. El error muestral teórico hipotético sería de ± 3,2 para un nivel de confianza del 95,5% y siendo p=q=0,5. La recogida de la información se realizó del 3 al 4 de abril de 2006.*

| **Landa lana** / *Trabajo de campo* |
| --- |
| *Gizaker, S.L.*, Industrialdea de Gojain, Ed. C-2., 01170 Legutiano (Araba) |

# IRITZIAK